

BERRIGARA

122. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1993, urriak 15


BERGARAKO
INTSUMISOEN
BILERA EGIN
ZEN
ZAPATUAN

GAZTETXEKO
ORDEZKARI
BATEKIN
BERRIKETAN

KIROLAK

MARTIN EGAÑA
KOTXE GIDARIA
BERRIZ ERE
ZIRKUITOETAN

INGELES IKASTEKO ORDUA



THE



LOOK

Burberrys
OF LONDON

egizabal




CARTUJANO

PEYTON

CAMPER

Kutxa



gipuzkoa
donostia kutxa

**Juan Mari GALARRAGA
ARANZABALentzat SEAT Ibiza
zoragarria!!. 138.415 zenbakia.**



Bergarako Barrenkaleko Kutxako sukurtsalean ateratako argazkian, bertako zuzendaria den Alberto Arizagaren eskutik kotxeko giltzak jasotzen ikus dezakezue Juan Mari Galarraga.

**Azaroaren 7an beste
kotxe bat zozketatuko
dugu Bergaran!!**

PROTAGONISTAK

GANADU FERIA

Jendetza izugarria bildu zen joan zen asteartean Elosuko Mendiko Ganadu Ferialan. Bergara zein Azkoitia aldetik igotako ehundaka lagunek, inguruko baserritarrek aurkeztutako kalitatezko ganadu, gazta, talo, artisautza, edota kinkilero postuetako jeneroa gertutik ikusteko aukera izan zuten.



Alde kooperatibak.

Aurkeztutako 200 ganadu bururen artean, irabazleak hauek izan ziren: asturiar arrazako behi onenaren saria, Pako Badiolak eraman zuen. Blonda arrazakoa, Antonio Olaizolak; txaroles arrazakoa, Jose Maria Beristainek eta pirenaikakoa, Behi

Behi talderik onenaren saria, berriz, Antonio Olaizolak jaso zuen eta ardi onenarena, Resurreccion Balerdik. Jose Aranbarri, zaldi/behor onenaren saria eman zitzaion eta feriako abererik onenarena, Pako Badiolaren behi batek eraman zuen.

Jendetza izugarria eta bestetan baino salmenta gehiago

ITURRI ONETIK

Kontrabandoko tabakoaren atzetik

Aduanako hainbat agente herriko tabernetan saltzen omen den kontrabandoko tabakoaren atzetik dabilta Bergaran eta inguruko herrietan. Taberna batetan 250-275 pta. tan saltzen den tabako gorriko pakete batek 245 pta. balio du estankoetan. Estankoen salmentei egiten zaien kaltearekin eta kontrabandoarekin amaitu nahi du Gobernuak; 100.000 eta 2 milioi pta. bitarteko isunak jarri eta reinzidetzekotan taberna ixtera hel daitezke.

ESAN DUTE

"Lizarrara etortzearen helburu nagusia ikasleek mahatsaren prozesu osoa ezaguru dezatela litzateke. Mahatsa bildu, klase teorikoa jaso eta, ondoren, mostoa lortzeko mahatsa zapaldu".

JUAN CARLOS GOÑI
Irakaslea
DIARIO DE NAVARRA

"Artelekutik pasa den Arte Ederretako jendea da lan egiten duena. Jende askok Arte Ederrak ikastea aukeratzen du Kazetaritza, Biologia edo beste karreraren bat aukeratzen duenaren antzera. Ni ez nago jende horren aurka, oso ondo iruditzen zait. Arte Ederrak ikasten duten 1.500 ikasleetatik % 10a dedikatzen da artera, gainontzekoek lanean jarraitzen dute, margo klaseak eman edota diseinura dedikatzen dira".

MANU MUNIATEGI
Margolaria
ARIZ-ONDO

Argitaratzailea:
Jardun Elkarte
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara. ☎ 76 08 19

Berrigara
Tfnua. eta Faxa: 76 03 97
Babeslea: Bergarako Udala.

Erredakzioa
Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Mikel Elkorobereibar.

Maketazioa:
Eneko Azkarate eta Eduardo
Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:
Alex Azkarate eta Edurne
Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:
Inaki Eraña, Gorka Elorza eta
Alex Labaien.

Kolaboratzaileak: Jose Angel
Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel
Angel Elkorobereibar, J. M.
Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai,
Maripi Laskurain, N. Alzelai,
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M.
Lizarralde, Monika Belastegi,
Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña,
Asier Madinabeitia, Josune Iñarra
eta A. M. Goenaga.

Argazki laborategia:
Pol-Pol Argazki Taldea eta Kifu.

Komikia eta marrazkiak: Josu
Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:
Gertu Koop. E. (Zubillaga. Onati).
Banaketa: Txantxangorri Taldea.


Copyright:
BERRIGARA

Tirada: 3.300 ale.
Lege gordailua: SS 50/ 91
ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esa-
nen eta eritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo sailaren laguntza jaso du

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

ZUBIETA

elektragintza

- ✓ Motorren bobinaketa
- ✓ Era guztietako instalakuntzak

Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnua: 76 23 48

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

**SLIVER (ACOSADA)**

Ostirala: 22.30.
Larunbata: 17.00, 19.30,
22.30.
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30.

**LA ARDILLA ROJA**

Osteguna: 19.30.

Zinea

▼▼ **Sharon Stone**k ederki asko daki arrakasta zelan lortu, batez ere *Instinto básico* polemikoa egin eta gero. Honetan ere, *vouyerismoa* aitzakitizat hartuz, bere gorputzaren luzimendurako eginiko filmea dakarkigu. **William Baldwin**ekin.

▼▼ **Julio Medem**en bigarren filmeak umorea eta amodioa nahasten ditu. Gezurrez baliatuz, oso erlazio bitxia sortuko da **Emma Suarez** eta **Nancho Novoren** artean. Filmearen aurretik benetan pena merezi duen *El columpio* laburmetraia.

▼▼ **Bergarako eskultoreek** erakusketa bateratua prestatu dute eta Kultur Etxean ikusgai izango da gaur, ostirala, hasi eta hilaren 30era bitartean. German Amurrio, Santi Arrieta, Joseba Azkarate, Mari Asun Akizu, Yon Balentziaga, Joxan Iza, Maria Jesus Mancisidor, Jose Javier Ugalde eta Xabier de Zerioeren lanak ikusteko aukera izango da.

Deiak

▼ **Jubilatu**en irteera Gernikara urriaren 25ean. Plaza mugatuak. Izen-ematea: 3.000 pta.

▼ **Marcelino Ruizen** "Gure herria" margo erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **1929**an jaiotakoen anaiarte-ko eguna urriaren 31n. Izen-ematea: 761922 (J.L. Kapanaga).

▼ **Udal Bandaren** kontzertua igandean 12.30etan Novedadesen.

▼ **Eguzkik** antolatuta, ostira-lean, hilak 15, suteei buruzko hitzaldia Kultur Etxean 19.30etan. Hizlariak: Maite Aristegi eta Juanjo San Sebastian.

Ogia

▼ **Igandea 17:** Konde.

GOARDIAKO FARMAZIAK

▼ **Larunbata 16:** Mozos/Corcuera.

▼ **Igandea 17:** Mozos/Irizar.


▼ **Astelehena 18:** Camacho/Amezua.

▼ **Asteartea 19:** Puy/Ruiz.

▼ **Asteazkena 20:** Guallar/Morales.

▼ **Osteguna 21:** Estella/Azkoaga.

▼ **Ostirala 22:** Mozos/Corcuera.



FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24

SURPE Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

KIROL

KARTELDEGIA

FUTBOLA

BERGARA-ANAITASUNA

Lehen Erregional maila
Igandea 16:00. Agorrosin.

FUTBITOA

LARUNBATA:

Barruan:

- 9:00: ERROTAGAIN-SOROPOTROAK.
10:00: MADURA-GUADELEST.
11:00: BILDURABREK LAM-EZINLEIKE.
12:00: AKORT ARIZNOA-SHAKTALE.
13:00: CANALEJAS-OGIZUN.

Kanpoan:

- 9:00: LABEGARIAIETA-UFALA.
10:00: EGOKI-ARKUPE.
11:00: KIROLZALEAK-KRAY.
12:00: PATA NEGRA-HARTU SAMAK.
13:00: LA TXUPETA-UEVE BIKOITZA.

IGANDEA:

Barruan:

- 9:00: ANGIOZAR- OS JARDINEIROS.
10:00: NAHIKARI-KRITERIUM
11:00: TOKIEDER-OH ZEREZOS.
12:00: USOA-KRISTON POTRUAK.
13:00: MONGATXURRA-ARLOTEAK.
16:30: REVIENTA-EUSEBIO II.
17:30: AMOZKIBAR-ERDIBITERRAK.
18:30: KALIMOTXO-IGANDEKOAK.


Kanpoan:

- 9:00: TXIPIRON-ETXAGI.
10:00: MATALASCAÑAS-OZAETA.
11:00: ALDOKA MALDOKA-ERI.
12:00: KK USAIN-PAOK DE SAN JUAN.
13:00: ARI ARI-ARRANO.


Partidu guztiak Labegaraietako
Kiroldegian.



▼▼ **Begarako eskubaloi** taldeek larunbatean jokatuko dituzte euren partiduak Labegaraietako kiroldegian. Arratsaldeko 5.30etan senior mailako gizonzkoen taldeak Eibarren kontra jokatuko du. 6.45etan, berriz, jubenil mailako neskek Aloña Mendiren aurka neurtuko dituzte indarrak eta 8etan, azkenik, kadete mailako mutilak Elgoibarren aurka arituko dira. Argazkian, Josetxo Muniategik zuzentzen duen senior mailako taldea.



Galarzak Balerdirekin jokatu du.



PROFESIONALAK

- Arteaga eta Oregi/Goñi eta Azkarate.
- Balerdi eta Galarza III.a/ Salaberria eta Elkorro.
- Kalonge eta Andueza VI.a/ Badiola I.a eta Errasti II.a.

Larunbatean,
16.30etan Udal
Pilotalekuan.

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
Kafea da gure berezitasuna
Zubieta 26, BERGARA

LARREA
TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA

LARRAÑAGA
eta **ZUBIA**
Banatzaileak

Errioxako ardoak, olioak,
esnea, lejiak...
Martokua 32, tfnoa: 764594

EITB, Diario Vasco, El Correo Español,... Berrigara

Ildo Informatibo berbera. Berriemate ezberdinak baina zentzuz berrikerio berri berberak. Batzuk, haundiak, dirua, eta hau nolani erabilizten dutenen errapeetatik bizi dira. Bestea, Berrigara, txikia, Udaletxe eta bertan egin eta desegiten dutenen itzalean bizi da. Eta denek egiten dute bat botereaz kanpo dabiliztanen aurka, errealitatearen aurpegi bat bultzatuz, eta bestea izkutatuz, desinformatuz, gezurrez betez...

Bergaran istiluak badaude beti alderdi bat azpimarratzen da. Biolentzia badago, beti alde batena. Lehengoan, hain zuzen, kabina batzuk hautsi ziren eta zipaiok ere tiroka aritu ziren, baina nola ez, beti kabinen argazkiak eta inoiz ez zipaioen hostiena, ezta pintadenak, kartel informatiboak ere...

"Pazifikazioaren" aldekoek mobilizapenen bat antolatzen badute, beti aipatzen da eta beste aldekoak, pakearen aldekoak, asko eta asko ixiltzen dituzue, edo beren aspektu batzuk, biolentziaren faktorea, soilik

aitatu.

Ez, Berrigara ez, Bergaran ez ziren 2 manifa soilik izan. Gezurra, gezur borobila. 5 egon ziren, oso jendetsuak, eta herria propaganda eta torturaren aurkako ohiz bete zen ostiral, larunbat, igande eta astelehenean, bitan.

Hau da egia, frogatu daitekeena eta zuek ez duzue aipatu ere egiten. Eta ez aipatzean, deformatzen zabiliztate, herriaren islada izan beharrean, herriaren Gobernuakideen bozeramale kolaboratzaile.

Hau da egia eta ez bestelakoa. Bakoitzi berea. Ahal bezala ozenki diogu: ez ezazue gezurrik esan edo gezurretan jarraitzekotan, jaso ezazue pizten duzuen gorrotoaren ordaina!

J. S.

Eskerrak guztioi

Pasa den astelehenean Angiozarraren suteaz kaltetuak izan ginen bi familiok gurekin agertu duzuen laguntza eta elkartasuna eskertu nahi dizuegu guztioi. Etxea erretzen zegoela konturatu ginenetik, hasieratik, jaso dugun laguntza benetan eskertu ezinezkoa bada, gazte eta nagusi, suhiltzaile..., denek eskaini diguzuen elkar-

tasuna eta egunean jasotzen ari garena inoiz ez dugu ahaztuko. Eskerrak benetan guztioi.

Marzan-Altube familia, Agirrezabal-San Miguel familia. Angiozar.

BERRIGARA Gida 94

Iazko Gabonetan atera genuen BERRIGARA GIDA 93an zure telefonoa jarri ez bazenuen eta 94koan agertu nahi baldin baduzu, dei egiguzu lehenbailehen telefono honetara: 76 08 19 (Jardun). Ordutegia: 18:00-20:00.

Tiira ba!



Josu Okina

BOTAk herriko intsumisoen bilera egin zuen larunbatean

Bergarako taldeak Udalari dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik

Bergaran Kultura, Gazteria, Hezkuntza, Jaiak, Gizarte-Ekintza, Osasuna, Ingurugiroa edota Euskara arloetan lan egiten duten talde guztiek azaroaren 30era arte izango dute zabalik Udalari dirulaguntza eskatzeko epea, 1994erako aurrekontua eta iharduera-egitaraua aurkeztu beharko dutela. Abenduaren 30erako aurten egindakoen memoria eta gastuen justifikanteak aurkeztu beharko dituzte Udaletxean. Kirol taldeak, berriz, azaroaren 30erarteko epea dute bai aurten egindakoaren memoria eta gastuen justifikanteak eta baita datorren denboraldirako diru eskaera Udaletxean aurkezteko.

Bergarako Objeto Talde Antimilitaristak (BOTA) herrian diren intsumisoei bilera informatibo baterako dei egin zien joan den larunbatean. Datorren azaroaren 8tik 18ra bitartean hainbat intsumisoren kontrako epaiketak izango dira eta BOTAk herritar intsumisoak egoeraren jakinean jarri eta etorkizunean egin daitezken ekintzak zehaztu nahi izan ditu. Gaur egun gure herrian 27 dira Soldadutzarekiko intsumisoak eta 10 Ordezko Zerbitzu Sozialarekikoak.

BOTAk kide baten hitzetan, "batez ere egunean jartzeko eta datozen epaiketak komentatzeko izan zen bilera. Suposatzen da epaiketa horietan aurrikusitako sententziak 2-3 hilabetekoak izango direla".

Joan den larunbatean hartu daitezkeen neurriak ere eztabaidatu ziren; "bai, laguntza taldeak sortzeko ideia komentatu zen. Gasteizen bada bolako talde bat eta Nafar-



Intsumisoek Donostian burututako protesta ekitaldi bat.

roako Familiarteko Elkartek ere indar handia dauka. Printzipioz ez dago ezer zehaztuta baina herriko hainbat talde eta kolektibori beren laguntza eskatzeko pro-

Intsumisoak kartzelan lo egitera bakarrik behartzen dituzte baina Nafarroako intsumisoak, esaterako, bertan gartzeten dira protesta modura. Bihar, Gipuzkoako

Bergaran 27 dira Soldaduzkarekiko intsumisoak eta 10 Ordezko Zerbitzu Sozialarekikoak.

posamena aztertu genuen".

Larunbateko bileran 3. gradua ere aztertu zen.

intsumisoen bilera egingo da Oreretan goizeko 10etan intsumisoen jarra zehazteko.

Teilatua konpontzen

Santa Marinako parrokiak San Martzial ermitako teilatuaren konponketari ekin dio. Lan horien aurrekontua osatzeko asmoz (milioi bat inguru) urriaren 16an eta 17an Santa Maringan egingo den diru-bilketan parte hartzeko dei egin du parrokiak, "bain gurea dugun ermita hori konpondu eta lanak guztion laguntzarekin ordaindu abal izateko". Horrez gain, bergarar guztiek hainbat kontu korrontetan sar dezakete dirua: Banco Guipuzcoano (8120.5 zka.n), Euskadiko Kutxa (009.1.03349.1) edota Gipuzkoa-Donostia Kutxan (01.0206803.8). Santa Marinak alde zuzenetik eskerrak eman nahi ditu.



JARDUNen autobusa Behobia-Donostiara

JARDUN Elkarteak azaroaren 14an Behobia-Donostia lasterketara joateko (partaide, ikusle edota animatzaileentzat) autobusa antolatu du. Proba amaitutakoan bazkaria izango da eta izena emateko interesa dutenek JARDUN Elkartera (Masterreka 13ra) jo edota 760819 telefono zenbakira deitu dezakete.

Etxe bat erre Angiozarren

Astelehen eguerdian lehen Eskola Zaharra zeneko bi pisuko etxea erre zen Angiozarren. Bertan bi familia bizi ziren; goiko pisua erabat kiskalduta geratu zen eta beheko pisua egoera hobegoan, kalte gehienak uraren eraginez izan zirela. Zubillagako suhiltzaileek ordu t'erdi bat behar izan zuten sua armatatzeko eta familiak abadetxean bata eta beste etxe baten bestea bizi dira momentuz.



Suhiltzaileek ordu t'erdi bat behar izan zuten sua armatatzeko.



Lehen edizioan futbolaren prestakuntza teknikoa, taktikoa eta fisikoa landuko dira.

Futboleko beka adjudikatuta

Iñaki Frierak barakaldoarrak eskuratu du

Iñaki Frierak SHEE-IVEFeko itzultzaile eta euskara teknikoaren irakasleak eskuratu du Deba Garaiko udal kirol eta euskara zerbitzuek kirol materialak euskaratzeko kaleratutako beka. Bekaren lehendabiziko edizio hau futbol arloko oinarrizko liburu bat edo liburu baten zatia euskaratzeko bideratu da eta Iñaki Frierak barakaldoarrak Christian Bourrel eta Maurizio Senoren *L'entraîneur de football* izenburuko liburu frantsesa aukeratu du.

Beka hau eskuratzeko asmoz 20 lan aurkeztu dira guztira eta epaimahiak liburuaren egokitasuna eta itzulpenaren kalitatea izan ditu kontutan beka adjudikatzeko orduan. Bekaren diru-kopurua 300.000 pta.koa da eta Iñaki Frierak 4 hilabeteko epea izango du itzulpena entregatu arte. Frierak 31 urte ditu

eta Euskal Filolojia lizentziatua da. Lana amaitutakoan euskara eta kirol zerbitzuek lan hori argitaratzeari ekingo diote. Bekadunak aukeratu duen *L'entraîneur de football* liburua prestakuntza teknikoa, taktikoa eta fisikoa (teoria eta hori lantzeko ariketa ugari) lantzen dira, pixkanaka pixkanaka gaztetxoek beren entrenamenduak euskaraz egiteko aukera izan dezaten.

Honako hau bailara mailan kirol arloan euskara bultzatzeko plangintza baten sartzen da eta antolatzailen asmoa hurrengo edizioetan beste hainbat kirol lantzea litzateke. Honekin batera, kirol ezberdinetako entrenatzaile eta monitorea euskaraz prestatzeko ikastaroak ere antolatuko dituzte Deba Garaiko udal kirol zerbitzuek datozen hilabeteetan.

**LONBIDE
OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5

☎ 76 10 57


BERGARA

**BERGARA
Karrozeria**

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA

☎ 76 12 31



Benito Canteroren argazki hau herriko zuribeltzeko onena izan zen iaz.

Kirol argazkien lehiaketa

Lanak entregatzeko epea abenduaren leian amaituko da

Bergarako Udal Kirol Zerbitzuak eta Pol-Pol Argazki taldeak kirol argazkien lehiaketako III. edizioa konbokatuko dute. Bertan Euskal Herriko 7 probintzietako argazkilariek parte hartu ahal izango dute koloretan zein zuribeltzeko kategorietan. Partaide bakoitzak, gehienez, edozein laboratoriorik teknikatik landutako 4 argazki aurkeztu ahal izango ditu eta lanak 30x40 cm.ko kartulinetan Kirol Zerbitzuan entregatu beharko dira abenduaren 1a baino lehen.

Epaimahaiak abenduaren 4ean emango du jakitera erabakia eta lan onenak Kultur Etxean ikusi ahal izango dira abenduaren 11tik 19ra bitartean. Abenduaren 18an arratsaldeko 5etan sari banaketa burutuko da Kultur Etxean bertan. Kategoriatan bakoitzeko lehen hirurek 20.000, 15.000 eta 10.000 pta. gehi

trofeo bana eskuratu dute eta bergarar onenek ere 10.000 pta. eta trofeoa eramango dute.

Joan den urteko edizioan 41 argazki aurkeztu ziren eta Cristobal Burgos zuribeltzean eta Enrique Ruiz de Erentxun koloretan nagusi ziren. Herriko onenak, berriz, Dani Santos (koloretan) eta Benito Cantero (zuribeltzean) izan genituen.

Iñaki Ugarteburu Kirol Zerbitzuko arduradunaren esanetan, *"partaidetza eta kalitateari dago kienez, basierako helburuak bete direla uste dut. Dena den, aurten hobetzea espero dugu. Zenbait aldaketa egin ditugu; epaimahaiaren argazki talde ezberdinetako 3 lagun izango dira talde berekoak izan beharrean, iazko erabakitarakin izandako gorabeherak errepika ez daitezten".*

Elizetako agiriak mikrofilmata

Bergarako Udalak eta Donostiako Elizbarrutiko Histori Artxiboak aurtengo urtarrilean sinatutako hitzarmenaren arabera, aurrerantzean Bergarako Santa Marina, San Pedro eta Elosuko San Andres elizetako agiriak Bergarako Udala Agirigordetegian mikrofilmez ateratako aldakitan aztertu eta erabili daitezkeela jakin arazten du Udala Artxibariak.

Monolitoari eraso

Astearte gauean 10 enmaskaratutako Domingo Martinez de Iralaren omenez Frontoian dagoen monolitoa erroberekin inguratu eta su eman zioten. Matxinada taldeak errebindikatu duen ekintzaren ondorioz, monolitoa erabat beltzitu geratu da eta zatitxo bat galdu du. Itxura denez, Matxinadak asteartean ospatzen zen Amerikaren aurkikuntzaren aurka protestatu nahi zuen.



Matxinada taldeak errebindikatu zuen Iralaren omenez eraikitako monolitoaren aurka egindako eraso.

ARREGI

Eraikuntza materialeak

Blitegia Tellerian, Tfnoa: 76 27 93
Labegaraita Auzoa

SANTOS IRRATI-TB

ELEKTRO TRESNAK • ARGIZTAPENA

Sukalde altzarien erakusketa

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10

IDOIA AZKARATE

Gaztetxeko asanbladakoa

**Idoia Azkarate
Gaztetxeko
asanbladako
partaide da.
Duela gutxi
epaileak
gazteek
Komenio kaleko
lokala utzi egin
behar dutela
erabaki du. Hori
kontutan
hartuz,
gaztetxekoek
aurrerantzean
zer egingo
duten jakin
nahi izan dugu.**



- Duela bi aste inguru Apezpikutzaren eta Gaztetxearen arteko lokalaren auzia dela eta, epaileak Apezpikutzaren aldeko sententzia eman zuen. Hori kontutan izanda, ze egoeratan zaudete?

- Sententzia irten ondoren, apelatzeko 10 egun genituen, eta egunero asanbladak egin ditugu, ea sententzia apelatu ala ez. Azkenean asanbladak egoera ez luzatzeko ez apelatzea erabaki du. Orain sententzia ejekutatatu baino lehen hilabete bat dugu eta epe horretan egingo ditugun aktibitateak zehazten ari gara.

- Sententziaren arabera orain zaudeten lokala utzi egin beharko duzue. Pentsatu duzue momentu hori heltzen denean zer egingo duzuen edo ze ate jo duzue?

- Udalera bi idatzi bidali ditugu eta guk han Gaztetxeari buruz egingadako galderak eurek tergebertsatu eta nahi izan

dutena erantzun dute. Gure ustez ez dute gazteekiko inongo politikarik eta diru guztia beraien poltsikoetan gelditzen da. Horretaz aparte, gure artean eztabaidatzen ari gara beste lokalen batera joateko.

- Zuretzat Gaztetxe batek zer izan behar du edo zer da Gaztetxe bat?

- Gazteek antolatu eta autogestionatzen duten lokal bat. Leku bat, bertan gazteok erabakitzen dugularik zela funtzionatu eta ze iharduera egin be-

har ditugun. Hori bai, instituzioen menpe izan gabe eta argi dugu guk gazteok badugula gure beharrei erantzuteko gaitasuna.

- Aurrekoa entzunda, gure herriko Gaztetxeak behar horiek bete al ditu?

- Bai, gazteoi musika asko gustatzen zaigu eta hemen astero herriko taldeek eta beste batzuk jotzeko aukera izan dute. Horretaz aparte hemen ping-ponga, futbolarik, bilarrak, kartak, mala-

barrak, erakustetak, hitzaldiak eta denetik antolatu izan dugu. Beti ere inoren laguntzarik gabe, gazte guztion laguntzarekin soilik.

-Bergarako Gaztetxeak ba al du herriko gazteen artean legitimatzerik?

- Nik horri erantzungo nioke, plazan berbena bat dagoenean ez dela jente guztia biltzen, orduan, Gaztetxeak, era batera edo bestera hori behar duen jendeari erantzuten dio. Beste batzuk nahiago dute Elgoibarrera "bakalaua" dantzatzera joatea eta beste batzuk Gaztetxera joaten gara. Bertan ez gaude inoren menpe eta ez dugu derrigorrez kontsumitu beharrik.

- Gaztetxean ze jende mota biltzen zarete?

- Denetarik dago. Badaude batzuk kasualitatez etortzen direnak eta beste batzuk antolatzen ditugun asanbladetara etortzen dira. Orain dugun arazoarekin gazte gehiago etortzen da eta manifestan ikusi dugunez jende askok apoiatzen gaitu.

- Lehen adierazi duzu, beste lokalen baten bila edo zabiltzatela...

- Hau izan da azken 28 urteetan gazteriak okupatu izan duen lokala eta uste dut merezi dugula.

- Sententzia guztiz betetzeko hilabete bat gelditzen da. Zer egingo duzue hilean zehar?

- Kolektiboek guri laguntzeko firmak eskatuiko dizkiegu eta aste antimilitarista bat egiteko asmoa ere badugu.

- Gaztetxetik irtetzeko asmorik bai?

- Lokal hau era batera edo bestera defendituko dugu, hori garbi daukagu.

ZUZENDARI eta BEGIRALE ikastaroa

ZUZENDARI IKASTAROA

ORDUTEGIA:

LARUNBATETAN

10:00-13:30 / 15:30- 20:30

IGANDETAN

09:30-13:30 / 14:30-17:30

PREZIOA:

- Matrikula: 30.000 pzta.
- Pentsioa: 15.000 pzta.

BEGIRALE IKASTAROA

ORDUTEGIA:

LARUNBATETAN

10:00-13:30 / 15:30- 20:30

IGANDETAN

09:30-13:30 / 14:30-17:30

PREZIOA:

- Matrikula: 25.000 pzta.
- Pentsioa: 27.000 pzta.

MATRIKULA eta INFORMAZIO GEHIAGO:

☎ 28 74 88 / 76 08 19 (JARDUN)

Antolatzailea:

Laguntzailea:

Babeslea:



Euskal Begirale Eskola

Gipuzkoako Foru Aldundia

BERRIGARA

Gida

BERRIGARA GIDA 94, Bergarako eta Antzuolako gida komertziala prestatzen ari gara dagoeneko. Iaz moduan, aurten ere, besteak beste Bergara eta Antzuolako denda, taberna, edota profesional ezberdinen telefonoak jasoko dituen telefono listinaren antzerakoa izango da. Iaz agertu ez bazinen eta aurten sartzeko asmorik baldin baduzu, edota iazko telefonoa, helbidea edo beste edozer gauza aldatu nahi baduzu, eskertuko genizuke gurekin harremanetan lehenbailehen jarriko bazina.

HARREMANETARAKO:

- ☎ 76 08 19. Astelehenetik ostiralera, 18:00-20:000.
- JARDUN Elkarte (Masterreka 13). Ordu-tegi bera.

Hello Bergara!:

Britainiar irletatik Bergarara

Gero eta gehiago dira Ingalaterra, Eskozia edota Irlandatik gure herrira ingelesa erakustera datozen gazteak. Eurekin izan gara.

Hizkuntzak ikastea moda izatetik beharrezko gauza izatera pasatu da. Horrek hizkuntz akademien ugalketa ekarri du eta horrekin batera, urtero gurera kanpotik etorritako hainbat irakasle heltzen dira. Aurten 5 irakasle berri etorri dira eta denek dute amankomunean gauza bat: ingelesa irakatsi eta gaztelera ikasi.

Ingelesa eta beste hizkuntza batzuk erakusteko gure herrira hainbat irakasle atzerritar etorri dira aurtengoan.

Herrian hizkuntza erakusteko soilik hiru eskola daude: *Espolon School of English*, UNEDeko hizkuntza eskola eta *La puerta al Ingles*. Bertan urtero atzerritik etorritako irakasle ezberdinak daude eta aurten etorritakoak behintzat Britainiar irletakoak dira. Hiru eskoziar, bi ingeles eta azkenik irlandar bat.

Espoloneko hizkuntza eskolan Eskoziatik etorritako Pam ari da klaseak ematen eta berarekin batera Charlotte ingelesa, nahiz eta honek dagoneko hiru urte daramatzan gure artean, oraindik ere igartzen zaio ez dela hemengoa. Biekin elkarriketatxo bat izan genuen eta lehen galdera moduan, ia derrigorrezkoa, gurera zergatik etorri

diren galdetzea da. Bineskek, Charlotek gaztelaraz eta Pamek ingelesez, bakarrik bi aste baitaramatza gure artean, bat

egiten dute erantzuteko orduan: "gure herrian, ikasketak amaitu ondoren, bagenuen lana baina ez gustokoa eta irakasle moduan hona etortzeko aukera izan genuenean aprobetxatzea erabaki genuen, batez ere inguru hauek ezagutzeko eta gaztelera ikasteko asmoarekin".

Pam, 21 urteko eskoziarra da Edimbourghekoa eta hona etorri baino lehen Australia eta Afrikan izan da.

Horrenbeste toki ezagutu ondoren, gure artean hiru aste bakarrik da-

ramatzen arren Bergarari buruzko bere iritzia eskatu diogu: "barrigarria da zenbat euri egiten duen hemen eta 3 aste bakarrik daramadan arren, badirudi, lehen inpresio moduan bemengo jendea zabalagoa dela".

Charlotte bere lankideak esan digunarekin ados dago: "bemengo jendeak bere bizitza kalean egiten du eta poteo, pasio eta kuadrilarekin ere beti kallean. Tabernak ere beranduago ixten dira eta han Ingalaterran 11etarako jendea etxean dago eta ondorioz bizitza so-



"La Puerta al Ingles"eko Rene (arduraduna), Cat, John eta Alan.


ziala etxean egiten da".

Hemen beti pentsatu izan dugu kanpoko eta batez ere mendebaldeko Europako bizitza kalitate gurea baino hobea dela eta zera diote bi irakasle gazte hauek "diferentzia gutxi dago, baina, -Charlotten ustez- Andaluzian eta Galizian izan naiz eta han bai Euskalerriarekin eta bai Britainiar irlekin konparatuz, bizitza kalitatea askoz ere baxuagoa da. Baina hemen erropa garestiagoa da eta jatekoa, aldiz, merkeagoa".

Charlotten dagoeneko 3 urte daramatza gure artean eta esan daiteke guztiz integraturik dagoela hemengo bizitzara, baina Pamek urtebete egin behar du hemen eta urte honetan ze espero duen itaundu diogu "gaztelera ikasi, Euskalerrria ezagutu, lagunak egin eta 9 hilabeteak irauin!".

Suitzatik Bergarara

UNEDeko hizkuntza eskolara Joan, irlandarra heldu da aurten klaseak ematera, aurretik 2 urtez Suitzian aritu da klaseak ematen. Hau ere aurreko bien moduan gure artera gaztelera ikastera etorri da eta horretaz aparte denda ezagutu eta bertako ohiturak aztertu nahi ditu. Bergarara etorri baino lehen neska honek Euskalerrriari buruz ez zekien gauza haundirik eta hona etorri eta zer aurkitu duen jakin nahi izan dugu: "gebien harritu nauen gauza euskara izan da, zeren gaztelera eta euskararen artean ez baitago inongo barremanik eta oso interesgarria iruditu zait".



Ezkerreko argazkian, "Spolon school of english" akademiako Pam eta Chantalle. Eskumakoan, berriz, UNEDeko hizkuntza eskolako Joan.



Irlandarren eta gure arteko ezberdintasunak nabariak dira eta bere ustez nabarmenena jatorduak dira, han, Irlandan, afaordua arratsaldeko 6ak aldean izaten baita. Irlandatik etorri eta hizkuntza aldetik, gaztelera apur bat dakien arren, ikasleekin komunikatzeko ze arazo dituen galdetu diogu. "ikasleak helduak eta gazteak ditut eta, nabiz eta guztiekin elkar ulertzeko arazoak izan, oso jatorrak dira".

Honek ere bakarrik 3 aste daramatza Bergaran eta egunero 7 ordu ematen ditu lanean, baina gazte denez, 24 urte, lanetik kanpo zer egiten duen galdetu diogu. "oraindik ez dut ondo ezagutzen herria eta batez ere erosketak egitera irtetzen dut, baina ikasleei galdetu behar diet ea hemen zer egin daitekeen".

Kafea tea baino hobea

Alan, Cat eta John La puerta al Ingles eskolan

arrituko dira aurten klaseak ematen.

Lehenengo biak eskoziarrak dira eta John aldiz ingelesa. Bi gazteek, argazkietan ikuten denez beraien korbatekin argi utzi ziguten kanpotik zetozela. Elkarrizketako lehen galdera izan zen ea zer espero zuten beraien ikasleengandik eta hirurek batera "hard work" (lan gogorra) erantzun zuten. Hiru gazte hauei igartzen zaie oraindik nahiko galduta dabilzala, baina dagoeneko hasi dira inguruko gauzarik erakargarrienak dastatzeko "duela bi aste Arrasaten izan ginen Mari-txu Kajoin eta oso ondo pasatu genuen".

Okelarik ez

Denbora libre betetzeko Catek ea hemen igerilekurik badugun galdetu digu eta Johnek, berriz gimnasiarik dagoen. Bere aldetik Alanek britaniarren tearen mitoa erabat apurtu digu, bere ustez kafea baita gauzarik onena. Euskalerriaz kan-

poan zerbait ezagutzen baldin bada, bere sukaldaritza da eta sukaldaritza horretatik zerbait gustatzen zaien galdetu diegunean ezusteko ederra hartu dugu, hirurak begetarianoak baitira.

Hiru gazte hauek herriko dendekin sospresa bat baino gehiago hartu dute: "han Britainiar irletan dendak egun osoan zehar 8ak arte edo zabalik egoten dira, baina hemen eguerdian itxita daude. Gainera eskaparrate guztiek sekulako itxura ona dute, ban kalitate ezberdineko dendak daude, baina hemen denda guztietan kalitate ona dagoela ikusten da. Bestalde alkohola oso merkea da eta DC Marteen botak ere gehiegi ikusten ditugu".

Elkarrizketa entzuten Rene, La puerta al ingleseko arduraduna dago eta denden kalitateari buruzkoa entzun duenean zera esan digu: "inguruko Eibar, Soraluze edota Elgoibarrekin konparatuz, Bergara oso elagantea dela somatu dut".

FS
oto sistema


APPÉNIÉ

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

Zer deritzozu intsumisoen jarrerari?



Joseba Aseginolaza
30 urte, langilea

Ba printzipioz ondo. Nere ustez ejerzitoak profesionala beharko luke izan eta bestek libre.



Edurne Aldana
55 urte, etxekoandra

Oso ondo, nere semea ere hor dago eta. 22 urtekin eskola amaitu eta soldaduzkara joan behar izatea gaizki ikusten dut.



Arantxa Kaperotxipi
36 urte, etxekoandra

Ondo, soldaduzka boluntarioa izan behar zen eta joan nahi ez duenak ez joateko eskubidea eduki.



Javi Moreno
30 urte, langilea

Primnerakoa. Inork ez luke soldaduzkara joan behar. Ez diot zentzurik ikusten.

TOKI-ONA

Bodegoia-Taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1, ☎ 76 39 53

**DENA
100etik**

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta, 3

**AGOITZ
Tapizdenda**

San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58

BERGARA

anezka

Udazkenerako oihalak
eta lenzeria

Espoloia 8, Tfnoa: 76 59 25

Mari Carmen
ARRAINDEGIA

Arrain freskoak,
izoztuak eta mariskoak

Kruz Gallastegi
☎ 76 15 90 / 76 40 73

**KONDE
PANADEROKUA**



Burdiñate, 1 ☎ 76 12 31



Egunkaria

Joan zen astean Gasteizko parlamentuak onartutako ez legezko proposamenaren bitartez, Lakuako gobernuari azken hilabeteetan "Egunkaria" rekin hasitako negoziaketa aurrera jarrai dezan eskatzen zaio. Sortuko diren elkar-riketa hauetatik bi puntu nagusi daude eztabaidatzeko. Batetik, "Egunkaria" ren kontra Eusko Jaurlaritzak egiten duen publizitate boikota eta bestetik egunkari euskalduna izateagatik jaso beharko lukeen dirulaguntza.

Publizitateari dagokionez, politikoki baino legalki konpondu beharko litzatekeen arazoa da, euskaldun guztiok eskubidea baitugu Eusko Jaurlaritzako publizitatearen berri izateko. Eta dirulaguntzari dagokionez, euskararen normalizaziorako Gobernuak duen interesa zenbaiterainokoa den ikusiko da.

Jadanik 3 urte dira "Egunkaria" martxan jarri zenetik berau izanik egunkari euskadun bakarra, harrotasunez aldarrikatzen zuten egunkari instituzionala ezertan gelditu ondoren.

Aurrerantzean aurrerantzean egingo diren negoziaketa bakoitzaren arrisku posible bat, alegia, "Egunkaria" ren hasierako proiektua ez errespetatzearena. Hala ere, hitz egiten hasia aurrerapausu garrantzitsua da.

Jon Ander Bengoa



Buzoia gainezka

Irakurle agurgarria:

"Beraiek diñoe" ataliam herriko letrauak idazten zebela pentsatzen neban eta a ze sustua zerbait esateko deitu zostenian! Ondio be, beherakuarekin nabil, sasiletrauak holakuetarako ohiturarik ez eta! Dana dala, hitza emon eta ezin hitza jan. Arazo mordoxka munduan: Errusia, Somalia, R. Madrila, Chabeli... baña horrek jakintsuentzat. Beste "problema" batek preokupatzen nau oingo hontan. Buzoia iriki eta... batian: Pistola silicona: 215 pezeta; estanteria Iris: 4.495; enrollacables Jo-Jo: 1.795. Bestian: calderas murales para A.C.S. y calefaccion. Hirugarrenian: En el Antiguo, 54 viviendas: 16.900.000 (ja, ja, ja) eta laugarrenian: cursos de ingles para los que odian estudiar: home english. Rematia Kutzako faktura bat.

Zenbatetan errekaueztatik karga einda, poltsak laga eta buzoia iriki? Zenbatetan txizalarririk jota ataxan sartu, baña etxera jun aurretik, giltza atera ezinka buzoia zabaldu bihar? Guzti hau propaganda orrixak jasotzeko.

Danok daukagu lagun baten berri eukitzeko gogua, nobixa-nobixuaren eskutitza jasotzekua, urruti bizi denaren notiziak lortzeko esperantza... Honen orde, ezezagun batzuk betetzen dozkue buzoia. Gora propaganda eta aurrezki kutxak! Hola segitu ezker, G.G. Marquezen koronelak baino okerrau ibiliko ga eta "artistei" eta letrauel lagakotseu idazteko eta komunikatzeko gaitasuna.

P.D. Bateon batek zerbait idatzi baino lehen bialdu daixela komuneko papera beherakuekin dana gastau dot eta.

Asis Iriondo

**Aldoka
Maldoka
TABERNA**

Kruz Gallastegi, BERGARA

ARRASATEARRA

Gure berezitasuna bazkariak. **Taberna**
Eguneko menua daukagu.

Zubiaurre 22, Tfnoa: 76 20 19 BERGARA

KORTA-ZAR

Txokolategia
Pintxo eta ogibitartekoen
espezialitatea

**OSTIRALETAN GOIZEKO
9 ETATIK ZABALIK**

Barrenlale 16, ☎ 76 20 62



**ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA



Beheko Taberna

Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

TABERNA ZAHARRA

Jatetxea

Bazkariak
eta
afariak

Tfnoa 76 21 21
ANGIOZAR

IRUDI Erlojudenda Bitxitegia

San Pedro 11
☎ 76 51 65

EDEL tapizdenda

Etterako artikuluetan aukerarik
haundiena eskaintzen dizugu:

Alfonbrak, kortinak,
kortinoiak, koltxak,
edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar
baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik
egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14, BERGARA



□ Nerea Ugarte eta Manu Herran ezkondu

Larunbatean, urriak 9, **Nerea Ugarte** eta **Manu Herran** bergararrak Santa Marina elizan ezkondu ziren. Ondoren, familiarteko eta gonbidatu guztiek Gatzagako Gure Ametsa (Marisa) jatetxean izan zuten bazkaria eta ezkontza bidaia egitera, berriz, Thailandiará joan zaizkigu Nerea eta Manu. Zorionak eta ondo ibili!!



□ Ikasleak bendimian

Lizarrako kanpingak gonbidatuta, **San Martin Ikastetxeko** 10 urtetik 13ra bitarteko 49 ikasle Lizarran izan ziren pasa den astean, bi egunez, mahatsaren prozesua gertu gertutik ezagutzeko asmoz. Mahatsa bildu ondoren, klase teorikoa izan zuten jarraian eta, ondoren, batutakoa zapaltzeari ekin zioten mostoa lortu ahal izateko. Bakoitzak, gainera, mosto botela bat ekarri zuen oroigarri modura. **Diario de Navarra** egunkariak urriaren 7an argitaratutako informazioaren arabera, bergarrek 200 bat kilo mahats *bendiamiatu* zituzten. Ez daude makal ez gure gaztetxoak!!



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA



□ **Kantari alemaniarrek Bergaran**

Joan zen urteko Aste Santuan **Aritzeta Abesbatzak** Alemaniara eginiko bisitaren ordainetan, astebukaera honetan **Reimbeck Jundgenchor** abesbatzako hiru lagun Bergaran izan dira Aritzeta-koekin harremanak sendotzeko asmoz. Mike lehendakaria, Hartwig zuzendaria eta Uli abesbatzeko kidea larunbatean iritsi eta alde batetik bestera ibili dira lau egunez: Donostia, Udalaiz, Loiola (bertan Hartwigek organoa jotzeko aukera izan zuen) edota Elusu bisitatu dituzte eta, nola ez, agurtzeko afari on bat eskeini zieten asteartean Altzasun. Aufidersen!!




□ **Parroko aldaketa San Pedron**

Igande eguerdian, San Pedron, **Jose Mari Eguren** orainarteko parrokoaren agurra eta **Fidel Eizagirre** parroko berriaren ongi-etorria burutu zen, **Jose Maria Setien** Donostiako Gotzaiak emandako mezarekin. Argazkian, ezkerretik eskumara: Rafael Eizagirre abadea (Fidelen anaia), Jose Mari Eguren, Jose Maria Setien, Fidel Eizagirre eta Nicomedes Larrañaga.


Zertan dibardute ba?

DAXKA



Mikel (ahotsa), Iker (kitarra), Unai (bajua), Iban (ahotsa) eta Jesusek osatzen duten musika talde bergarar hau otsailen maketa bat grabatzeko asmotan dabil Madrilen, bertan ikasten ari den Iban Osaren laguntzaz.

MIGUEL ANGEL MUELA



49 urteko bergarar hau Euskal Kirol Kontseiluko ordezkari izendatu dute. Datozen urteotan kirol araudia eta horren kontrolaz arduratzeaz gain, kirol hobekuntzarako aholkuak ematen saiatuko da.



MEMESA



ARRASATE ☎ 76 42 22 • ARETXABAETA

Umore giroan

Laster illgo diralakuan

Tabernan mai baten inguruan, an zegoen eibartar kuadrilla batekuak berba eta berba. Oraindik biarrian zebizenak ziran batzuk. Bestiak, barriz, biarrik egin barik, gaixo luzetik kobratzen zebenak.

Orretan sortu zan diskuziñua, ia, illian azkenian, gaixo luzekuak zelan kobratu leikien biarra egiten dabenak baino geixago.

Aretako batek, gaixo luzekoei begiratzuz, umoretsu, explikaziño au emon zeban:

- Itxura danez, or goikuak denpora gitxirako izango dala pentsatzen juek, zuek laister illgo zariela-ta. Orregaitxik emoten detsue geixago.

Orrek sobria jakan

Plaentxiako a umetxua oso buru aundixa zan. Egun baten, marifiel sonbrerotxo bat erosteko gogua etorri jakon gure mutiko buruaundixari. Juan ziran dendara sonbrerotxua erosi naixan ta... an ziran kontuak aukerako bat billau ezinda!

Orduan amak dendarixari:

- Badakin ba, onek faltia jakan da...

Dendarixak:

- Ez, faltia ez, orrek, sobria jakan.

Pedro Zelaia

ORAIN DELA 20-25 URTEKO NOTIZIAK



Bergarako Xake Taldea, orain dela 20 urte bezala gaur egun ere gogor lanean.


ILDEFONSO MARTINEZ OMENDU DU GIPUZKOAKO XAKE FEDERAZIOAK

Indarra hartzen ari da xakea gure herrian eta ehundaka dira une honetan Bergarako xakezaleak. Zazpi urte inguru dira kirol / zientzia hau maite zuten bergarar batzuk Bergarako Xake Taldea sortzea erabaki zutela eta talde hori Bergarako Kirol Elkarteko sail inportanteetako bat bihurtu zela. Ordutik hona Martinez, Ogueta, etab.ek lana sendo egin dute eta berei esker gaur egun xakea Bergaran kirol inportantea da.

Eta iritsi da momentua aintzindari haietako bati merezi zuen omenaldia eskaintzeko. Ildefonso Martinez izan da Federazioak bere lan eta merituegatik aukereatu duen pertsona eta hilaren 17an, Donostiako Union Artesana elkartearen beste bi xakelari gipuzkoarrekin batera, plaka eder bat jaso zuen Gipuzkoako Federazioko lehendakariaren eskuetatik.

La Voz. Bikuña. 1973-X-17.

Asier Madinabeitia, Ane Goenaga eta Josune Iñarrak hemerotekatik bildutako notiziak



GAZTELU

Burdinaki denda


Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

KIZKUR



Ileapaindegia Solariuma

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

 **IZADI**
sentiveri PILI GISASOLA

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua
Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

MEKOLALDE TABERNA

IGANDEAN, HILAK 17, ITXITA
Barkatu eragozpenak.


BONOFOTOA



M. A. Elkoroberezi

MARIA LUISA ZANGITU

MARIA LUISA ZANGITUk jaso du aste honetan BONOFOTOko saria. Azken BONOFOTOko argazkian agertzen zen baserriaren izena Angiozarko **Hirigolien-Zabala** zen. **Maria Luisak** jarri du erantzun zuzena eta berarentzat dira BONOFOTOko **10.000** pztak. ZORIONAK argazkian agertzen den **MARIA LUISA ZANGITU**ri. Eta besteok, segi jokutzen!!



Zein da aspaldiko Arrizuriaga plazatxoan dagoen XVI. mendeko etxe honen izena?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria:
10.000 Pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen:

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

TEMPRA STADIO



ERAKUSKETA:
Ibargarai 39
BERGARA

TAILERRAK:
Antigua Auzoa
ANTZUOLA

Autoberezi **FIAT**

ZERBITZU OFIZIALA

MOTA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK

Koldo Eleizalde, 8 BERGARA ☎ 76 00 00

ELECTRICIDAD
ELKAR
ELEKTRAGINTZA
☎ 76 00 00

Igeriketa ikastaroak

Udal Kirol Zerbitzuak igeriketa ikastaroak antolatu ditu, urriaren 21etik azaroaren 18ra lehena eta azaroaren 22tik abenduaren 22ra bigarrena. Astelehenetik ostiralera 20 ordu emango dira. Prezioa 6.100 pta.koa da, 4.185 pta. 19 urtetik beherakoentzat eta 1.500 langabetu, etxeoandra eta jubilatuentzat.

Txirrindularitza

Udal Kirol Zerbitzuek eta Gipuzkoako Txirrindulari Elkar-goak herrialdeko zuzendari tituloa lortzeko antolatutako ikastaroan parte hartzeko izena emateko epea urriaren 29an amaituko da.

MARTIN EGAÑA: "Inoiz baino konpetentzia handiagoa dago"

Martin Egaña 28 urteko bergarar gidaria bere 6. denboraldia betetzear dago Espainiako zirkuito karreretan. 3 urte Kopa Renaulten eman ondoren, aurtengoa Citroen AXen egiten duen hirugarrena dugu.



Martin Egaña.

tzen nau eta dudarik gabe oraingo hau ez da momenturik egokiena patrozinadoreak topatzeko. Dena den, sari onak daude eta aurrera jarraitzeko aukera badago.

- **Gutxienez, gidari guztiak kotxe berdintua duzue...**

- Bai, guztiok igual samar gaude, nahiz eta diferentzia txiki batzuk izan. Pilotoaren abilitadea sartzen da jokoan eta alde horretatik ondo dago. Diru asko gastatu barik konpetentzia ona egin dezakezu.

- **Eta zirkuituko herriko beste gidariak?**

- Pablo Irizarri buruz ez dago zer esanik; zirkuito mailan onenetarikoak da. Iban Rodriguez ere ondo ari da eta nere anaia Juan Antoniok ere txapelketa txukuna egin du patrozinadore barik.

- **Zer moduz doa denboraldia?**

- Nahi baino okerrago. Kotxearen erruez gain, zenbait istripu ere izan ditut. Entrenamendutan aurretik ibili naiz baina karreran 70 bakarrik sartzen dira eta gero eta konpetentzia handiagoa dago bertara klasifikatzeko txandetan. Sekula baino nekezagoa da.

- **Bi karrera besterik falta ez direnean, zein-**

tzuk dira zure asmoak?

- Ea karreretan suerte pixkat hobea eduki eta podiumen bat lortzen dudan. Ez dut postu onik lortu izandako 6 karreretan, onena Alcañizen egindako laugarrena. Etor-kizunera? Segitzea eta aukera izanez gero, Citroen ZXera pasatzea.

- **Patrozinadoreak topatzeko arazorik?**

- Aurtun Donostiako lagun batek patrozina-

Fontsiren omenez


Buru-belarri lanean ari dira Alfonso Miner "Fontsi" zenaren kuadrilako lagunak IV. Fontsi memorialaren antolakuntzan. Hilaren 23an izango da Seminarioan eta besteak beste ekitaldi hauek osatuko dute egitaraua: goizeko 8etan hasi eta 12 orduz jarraian futbito txapelketa jokatu da. Arratsaldeko 14:45etan, bestalde, mendiko bizikletako trabesia herrikoia jokatu da eta ondoren hiruko jaurtiketako saskibaloia lehiaketa izango da. Futbito txapelketan parte hartu nahi dutenek, Ariznoa, Deportivo edota Pol-Polen eman dezakete izena, 3.000 pza. ordainduz, urriaren 20a baino lehen.



LILURA
EDERTZE
INSTITUTUA
 Bidekurutzeta, 7
 ☎ 76 31 71
BERGARA

JAUJA KIROLAK
 Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

DEBA
GARAIA
 INMUEBLE ETA FINANZA
 AGENTZIA
 Arrasate / Bergara / Elgoibar
 T. Aranzadi, 2 behe. ☎ 76 21 80
 ☎ 76 06 37



Uholdeak orain dela 40 urte

Gaur ostirala 40 urte betetzen dira Ber-garan uholdeak izan zirela. 1953ko urriaren 15ean urak 7-8 m.ko altura hartu zuen. Horren ondorioz, Altos Hornos-etik Zubietara bitarteko denda eta etxeetan 4 milioi pta. inguruko galerak izan ziren, Altos Hornoseko altzairuaren labeak eztanda egin zuen eta Aurelio Gonzalez Sañudo 10 urteko mutikoa argindararren kable bat ikututa hil zen Altos Hornosen bertan. Igartua "Poleas"en fabrikak eta Osintsuko Artetxe lantegiak ere kalte larriak jasan zituzten. Ezkerreko argazkian, Altos Hornos atzeko aldean Agirrebeñako zubia urez gainezka ikus daitekeela. Behekoan, Zubietako zubian urak zuen altura eta indarra ikus daitezke.

Argazkiak: Jesus Urkiola



ETXAGI

Jatetxea


Afariak - Bataioak

Jaunartzeak

Eguneko menua

Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12



ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak.

Fatxadak, eskaparatek...

Amilaga (Gasolinera ondoan) Tfnoa: 76 57 34

ETXEBIZITZA

Garajea hartuko nuke alokairuan Tokiederren. ☎ 76 52 45.

Etxebizitza salgai Iparragirre kalean. ☎ 76 40 82.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 79 83 50.

Etxea alokatzen da Osintxun. ☎ 76 49 60.

Pisua salgai San Lorentzon. ☎ 76 27 35.

Pertsona bat behar dugu Deustuan pisua osatzeko ☎ 76 49 69.

Pisu amueblatua salgai Artekale 16an. ☎ 76 12 81.

Garajea salgai Iparragirre kalean. ☎ 76 28 52.

Pisua alokatuko nuke. Bulegoak jartzeko egokia. Merkea. ☎ 76 16 89.

Bergaran pisua betetzeko pertsona bat behar da. ☎ 76 55 88 / 76 56 67 (Salva).

DENETARIK

MSX ordenadoreko lau joku salgai. Kartutxoak. ☎ 76 59 47.

Estufa japoniarra salgai. Egoera onean. Oso merke. ☎ 76 31 23.

Nintendo bat salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

Karabana bat salgai. Ia berria. ☎ 77 04 98.

Argazki makina salgai: Nikon AF-601, 35-70 objektiboduna. ☎ 76 00 62.

Donostian pisua osatzeko neska bat behar da. ☎ 76 61 38 (Nerea).

Paseorako Peugeot bizikleta salgai. ☎ 76 48 68.

Ume kotxe bat salgai. ☎ 76 02 00.

Renault 21 TXE bat salgai. 1988koa. Egoera onean. ☎ 76 38 68.

Ford Fiesta kotxea salgai. SS-K. Ondo zaindua. ☎ 76 58 12.

Uberan taberna salgai. Erreztasun haundiak. ☎ 76 25 99.

Opel Corsa kotxea salgai (SS-U). Ondo zaindua. ☎ 76 18 95.

Bigarren eskuko bizikleta estatiko bat erosiko nuke ☎ 76 50 58.

Donostiara Ibaetara egunero joan beharra daukat. Kotxea eduki dezaket. ☎ 76 12 81.

Game boy bat salgai. 10 joku. 10.000 pza. ☎ 76 51 98 (iluntzean).

Seat 600 SS-6718 B salgai. Egoera onean. ☎ 76 17 61.

Egunero goizeko 7etan Zumarraga edota Tolosara joateko kotxea behar dut. ☎ 76 48 78.

LANA

Emakume batek etxeak garbituko lituzke ordu batzuetan. ☎ 76 47 67.

Latin, Euskara eta Frantses klaseak. ☎ 76 02 99.

OHO eta Ingeles klaseak emango nituzke ☎ 76 23 67 / 76 22 90.

Etxeak garbitu edota pertsonak zainduko nituzke. ☎ 76 50 63 (Marijo).

OHO eta Ingeles (maila guztiak) klaseak ematen ditut. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Etxeko lanak egin eta umeak zainduko nituzke. ☎ 76 26 63.

Ingelesezko klaseak ematen ditut. ☎ 76 26 63.

Ingelesezko klaseak. ☎ 76 31 36.

Ordenadorez lanak pasatuko nituzke. ☎ 76 05 43.

Ilea eta bizarra mozttera joango nintzateke etxetz. ☎ 76 41 98.

Ingeles klaseak emango nituzke. ☎ 76 46 54.

OHO eta LH (Administratritza) klaseak. ☎ 76 50 67.

Hildakoak

Maria Valiñas Obando

urriak 7, 60 urte

Maximo Jiménez y Hernández

urriak 10, 70 urte

Juana Albistegi Atorrasagasti

urriak 13, 74 urte

Jaiotakoak

Olaia Carmona Tejada

urriak 1

Unai Agirrezabal Urkiola

urriak 5

Eneko Pascual Delgado

urriak 5

Miriam Boizas Fernández

urriak 5

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70





**a, eme...
interiores**